

ARTE EREMUETAKO ZORROZKERIA HIZBIDEZ

Juan San Martín

Uztailaren haseran Donostiako Altxerri erakustegian Julio Caro Barojak bere obraren mostra bat aurkeztu zuen eta jaun baten kritika agertu zen uztailaren 6ko *El Diario Vasco* egunkarian, «Los devaneos de un rigorista» izenburuz. Hein batean merkatal sailean sartzeagatik mindurik, baina bere eritziak haruntzago eroanaz, «zapatariak beude beren zapateri» edo holako zerbait adieraziz.

Idazki horrek ematen digu honako hizbide hau, arte eremuetako zorrozkeriari buruz. Etnologo eta historiagile dena zergatik sartu da pintatzaile? Aduaneroaren haina eskubide duelako. Alajaina!

Henri Rousseau inork ez du ukatzen. Manierismoaren eta ondotiko akademisten arau hertsia indarrrik gabe gelditu zirenetik, eta sorketa mugatu ezinezkotzat jotzen delako. Hori ere historiak ekarri diguna da. Leonardo da Vinci-ri maisu zuen Verrocchio ahalegindu zitzaion berak baino hobeto pintatzen, baina nork esan ezer eskultore, arkitekto, ingeniari, biologo, musikari, idazle eta filosofo izateko? Jakituria guzi horrek eroan zuen asmatzaile bikaina izatera. Nork mugatzen du bere ahalmena eta nortasuna? Zientzia liburuez gainera hor utzi zigun pinturari buruzko bat ere: Gioconda eta Azken afaria ez dira nolanahikoak. Gure garaiko Max Ernst, medikua

izanik. zergatik sartu ote zen pintatzaile? Baina Ernst-en ka-soan pinturan hainako ona ote zen medikuntzan?

Bakoitzak beretik, bere gogotik, gaien mugaketari ihes egiteko eskubide osoa du. Rousseau-k leihoa ideki zion naif derizaitzaile estiloiari, jarraitzailerik izan du handik hiperrealismora arte. Baina estilo bati leihoa idekitzea hainakoa izan zen koloreen ugaritasunera eman zuena. Bada ostadarrak sei kolore dituela uste duenik. Zenbat ditu?: bost, sei, zazpi...? Bakoitzak bere optika ahalmenetatik ikusten ditu koloreak. Hil berria dugu bere etorria folklorea zuen Marc Chagallek, hortaz bere ikuspegia hain zabala zenez, ez dakigu ziur zenbat kolore erabiltzen zituen ere. Kolorekariok berrehunen bat erabili omen zituen. Ugaritasunez gainera horien armonizatzeaz nabari duen poesia kutsuan datza Chagall-en nortasuna. Izana den guziak ez du izenik, Chagall-en koloreen arabera. Euskaldunok mugatuak bai ditugu koloreen sailak eta sail bakoitzeko karia ez dira horrenbeste: gorrizkariak, urdinzkariak, berdezkarriak, horizkariak, niabarkariak, zurizkaritik belzkarira eman ditzazken guziak ere hesparru tipia dute edo Chagall-en balerak azti batena iduri. Gure begiak ez dira gauza kolore guziak ikusteko. Doinu hots guziak entzuteko ere jaio egin behar. Entzumenaren gorrieriak bere mailak dituen bezala, begiek lausoan. Eta horietarako berezko doaina duenak ere, Xalbador bertsolariak esango zuenez, lurrik hoberenak ere landu beharra.

Pintorerik ez dela odontologia klinikaren zuzendari? Zer aldia dago ogibidez artegintzaz ari denaren eta zaletasunez pintatzen duanaren artean? Nork erabakitzen du eta zein araura erakusketak egitea? Hori galdetuko nioke Karlos Etxarriri, salerosketa kontua bakoitzaren baitan dagoenez.

Biktoriano Juaristi, eleberrigintzan Victor Ivan bezala eza-gunagoa, antzerkigilea, arte ikerketetan oso ezaguna, bereziki esmaltegintzan, musikaria eta kirurgia klinikako zuzendaria Irunen eta Iruinean. Inoren eskubiderik behar ote zuen?

Ez du merezi aipatzerik ere Karlos Ribera odontologoaren lanez Donostian 1976an egin zen erakusketa.

Julio Caro Barojak etxetik bai zekarren gai soil batera mugatu ezina. Aitona Serafin nork ezagutzen zuen meategietako ingeniari bezala? Bere oroitzapenik badugu bertso, antzerki eta opera idaztetik dugu. Osaba Piok medikuntza utzi eta okin bezala porrot egin, lehendik zekarren idazletzari oratu zion buru-belarri eta ondoreak denon bistan daude. Osaba Rikardo ordea, pintore ona zen, eta bere garaian beste inor ez bezalako aguafortegintzan, baina idazle bezala egin zituen saioak kontutan hartzekoak dira. Dario de Regoyos bera ere, idazle bezala hain nabarmena ez bazen ere, aski ona zela erakutsi zuen Emile Verhaeren-ekin egin zituen bidaiak lekuko. Bestalde, uste dut, Unamuno, filosofiara zuen zaletasunagatik libratu zela pintore txarra izatetik, Antonio Maria Lekuonaren eskolan ez bai zen aurrelarietako .

Garai honetan J. Caro Barojaren artea berez zorrotza den baten erokeriak direla pentsatzea zentzugabekeria litzake. *Cuadernos de campo*-ren bigarren argitalpenari egin nion hitzaurrean, 1981ean, esaten nuenez gerraurreko *Anuario de «Eusko Folklore»*-an erakutsi zuen Juliok dibujorako doaina, lanabesak ez ezik arkitektura adierazpenezkoa ere esku-aidez ederki egiteaz. Duela hogetaka urtean orio pinturaz egin zituen laukiak motelak baldin badira ere, egun ezin dezakegu esan holarikorik. *Fauve* joerazko koloreak piztu dute bere lana, zuhaitz, mendi eta jauregi edo gaztelu egitean erromantiko mugimenduen kutsua erakusten du, baina espresionista izaki. Batez ere komika erara egiten dituenetan agertzen du espreziozko indar hori. Gaur egun artean ikusten diren korrenten aurrean ez dute lotsarik. Gaiak, gehienetan, gizartea kritikatzeko dira, eta bere burua lan horietako batean identifikatu duenak min izatea ez da harritzekoa. Gaiaren aldetik flamendar eskola zaharrekoen itxurak ditu, lehenago Jose Arruek bezala, baina Bosco-gaindik baino hurbilago Bruegel-egandik dabilela esango nuke. Hala ere, guzien gainetik oso berea den sigiloa ageri da eta edozein artistak lortu ezinezkoa da hori.